**AGINDUA, LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIOETAKO SAILBURUARENA, EUSKADIKO MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN LEGEAREN AURREPROIEKTUA EGITEKO PROZEDURARI HASIERA EMATEN DIONA.**

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.32 artikuluaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen esklusiboa du arlo hauetan: trenbideak, lehorreko, itsasoko, ibaietako eta kable bidezko garraioa, portuak, heliportuak, aireportuak eta Euskal Autonomia Erkidegoko meteorologia-zerbitzua, Konstituzioaren 149.1.20 artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe.

Era berean, lege-testu horren 10.25 artikuluak eskumen esklusiboa aitortzen dio Euskal Autonomia Erkidegoko jarduera ekonomikoaren sustapenaren, garapenaren eta plangintzaren arloan, ekonomiaren antolamendu orokorrarekin bat etorriz; 10.31 artikuluak eskumen esklusiboa aitortzen dio hirigintzaren eta lurralde-antolamenduaren arloan, eta 11.1.a) artikuluak, berriz, ingurumenaren eta ekologiaren arloan Estatuko legeria garatzeko eta betearazteko eskumena.

Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, 11.1.i) artikuluan Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari esleitzen dizkio lurreko, itsasoko, ibaietako eta kable bidezko garraioaren arloko egitekoak eta jardun-arloak.

Eskumen hori baliatuz, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sail honek egokitzat eta bidezkotzat jo du Euskadiko Mugikortasun Jasangarriaren Lege-proiektua egitea.

Proiektua egiteko eta izapidetzeko, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legean ezarritako bideari jarraitu behar zaio.

Abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 4. artikuluko lehenengo idatz-zatiak xedatzen duenez, "Xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko da".

Azaldutakoa kontuan hartuta, eta prozedura hasteko aginduaren beharrezko edukia zehazten duen abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 5.1 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, honako hau

**EBATZI DUT:**

**Lehenengoa. - Xedea.**

Agindu honen xedea da Mugikortasun Jasangarriaren Legearen aurreproiektua egiteko prozedura hastea.

Nahi izanez gero, J0D0Z-T2JTX-0T3P bilagailua erabilita, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: http://euskadi.eus/lokalizatzailea

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T2JTX-0T3P en la sede electronica http://euskadi.eus/localizador

Donostia – San Sebastián, 1 – Tef. 945 01 96 54 – Fax 945 01 98 56 – 01010 Vitoria-Gasteiz

**Bigarrena.- Arauaren xedea eta helburua. Proposatutako erregulazioaren edukia.**

Mugikortasun Jasangarriaren Lege Aurreproiektuaren xedea eta helburua pertsonen eta salgaien garraioak bete behar dituen printzipioak eta helburuak ezartzea da, gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren ikuspegitik mugikortasun jasangarri eta seguruaren garapen integrala lortzeko.

Era berean, Euskadin mugikortasun jasangarria lortzeko beharrezkoak diren tresnak eta prozedurak antolatu nahi dira, mugikortasunarekin lotutako gaietan eskumena duten administrazioen artean koordinatuta.

Azkenik, Euskadiko trenbide-segurtasuneko agentzia sortu nahi da, zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren izaera juridikoarekin eta trenbide-sistemaren segurtasunaren agintaritza arduradun gisa.

**Bigarrena. – Bideragarritasun juridikoa eta materiala.**

Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumena

Egin nahi den lege-aurreproiektua, hasiera batean, bideragarria da juridikoki eta materialki; izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.32 artikuluaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen esklusiboa du, besteak beste, lurreko garraioen, trenbideen eta garraiobide horien arloan, bai eta kable bidezko garraioaren arloan ere. Transferentzia horiek abuztuaren 25eko 2488/1978 Dekretuaren eta ekainaren 19ko 1446/1981 Dekretuaren bidez gauzatu ziren.

Era berean, lege-testu horren 10.25 artikuluak eskumen esklusiboa aitortzen dio Euskal Autonomia Erkidegoko jarduera ekonomikoaren sustapenaren, garapenaren eta plangintzaren arloan, ekonomiaren antolamendu orokorrarekin bat etorriz; 10.31 artikuluak eskumen esklusiboa aitortzen dio hirigintzaren eta lurralde-antolamenduaren arloan, eta 11.1.a) artikuluak, berriz, ingurumenaren eta ekologiaren arloan Estatuko legeria garatzeko eta betearazteko eskumena.

Eskumen organikoa:

Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituenak eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituenak, 11.1.i) artikuluan Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari esleitzen dizkio Euskal Autonomia Erkidegoko lurreko, itsasoko, ibaietako eta kable bidezko garraioen arloko jarduerak.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren barruan, eta sail horren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 11/2021 Dekretuan xedatutakoarekin bat etorriz, Azpiegitura eta Garraio Sailburuordetzari dagokio lurreko, itsasoko, ibaietako eta kable bidezko garraioen jarduera-eremua zuzentzea eta koordinatzea [14.1.c artikulua], eta, horretarako, xedapen orokorren proiektuak sustatu ahal izango ditu [7.d art.]. Garraioa Plangintzaren Zuzendaritza: bere eskumeneko gaietan xedapen orokorren proiektuak egin eta izapidetzea [8.b art.].

Eskumen funtzionala.

Bestalde, urtarrilaren 19ko 11/2021 Dekretuaren 4.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuari dagokio Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 26. eta 28. artikuluetan ezarritako eskumenak erabiltzea, bai eta Sailari esleitutako egiteko eta jardun-arloen esparruan indarreko legeriak esleitzen dizkionak ere. Zehazki, lehen aipatutako artikuluak [26.8 artikulua] ahalmena ematen dio bere eskumeneko gaiei buruzko lege-proiektuak Jaurlaritzari proposatzeko, onar ditzan.

Lehen esan bezala, eta Sailaren barruan, Garraio Plangintzaren Zuzendaritza mende duen Azpiegitura eta Garraio Sailburuordetzaren titularrari dagokio ekimena [14.4 artikulua], eta, beraz, zuzendaritza horren eskumena da arau-testuaren proiektua egitea.

**Ordenamendu juridikoan izango dituen ondorioak.**

Lege-aurreproiektu hau Euskal Autonomia Erkidegoak lurreko garraioen, trenbideen eta bitarteko horien bidezko garraioaren eta kable bidezko garraioaren arloan duen eskumen esklusiboa baliatuz izapidetzen da (EAren 10.32 artikuluan jasota dago eskumen hori), eta mugikortasun jasangarri eta seguruaren garapen integrala lortzeko printzipioak eta helburuak ezarri nahi ditu, bai eta mugikortasun jasangarria lortzeko behar diren tresnak eta prozedurak antolatzea, mugikortasun jasangarrian eragina duten arau sektorialak errespetatuz.

Egungo ordenamendu juridikoan eta mugikortasunaren arloan izango dituen ondorioei dagokienez, honako hauek nabarmentzen ditugu: estatu-mailan, 2/2011 Legea, martxoaren 4koa, Ekonomia Iraunkorrari buruzkoa; eremu autonomikoan, 4/2019 Legea, otsailaren 21ekoa, EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa; eta 254/2020 Dekretua, azaroaren 10ekoa, EAEko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa.

Trenbide-segurtasunaren arloan, Europako eremuan, trenbide-segurtasunari buruzko maiatzaren 11ko 2016/798 (EB) Zuzentaraua nabarmentzen dugu. Estatuan, 38/2015 Legea, irailaren 29koa, Trenbide Sektorearena, eta 1072/2014 Errege Dekretua, abenduaren 19koa, Trenbide Segurtasuneko Estatu Agentzia sortu eta haren estatutua onartzen duena. Autonomia-erkidegoaren eremuan, nabarmentzekoak dira maiatzaren 21eko 6/2004 Legea, Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sareari buruzkoa, eta otsailaren 23ko 29/2016 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumeneko trenbide-azpiegituretarako zirkulazioaren eta seinaleen erregelamendua onartzen duena.

**Ekonomian eta aurrekontuetan izango duen eragina**

Abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 10.3 artikuluan xedatutakoaren arabera, dagokion memoria ekonomikoa egingo da, eta bertan aztertuko da etorkizuneko araua aplikatzeak eragingo duen kostua eta araua aplikatzeak EAEko Aurrekontu Orokorretan izango duen eragina.

Halaber, memoria horretan, arauak beste administrazio batzuetan eta partikularretan duen eragina aztertuko da, baita ekonomian oro har duena ere.

**Egokitzat jotzen diren izapideak eta txostenak.**

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen arabera, hasiera-aginduan adieraziko dira gaiaren arabera egoki iritzitako izapideak eta txostenak.

Espedientean, aipatutako memoria ekonomikoaz gain, arauaren beharra, egokitasuna eta helburuak justifikatzeko memoria ere jaso beharko da.

Memorian, halaber, enpresaren gaineko eraginaren ebaluazioa jaso beharko da, Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikuluan ezarritakoa betetzeko.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren aplikazioari buruzko Jarraibideak onartzen dituen Gobernu Kontseiluaren 2017ko abenduaren 12ko Erabakiaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan xedatutakoaren estaldura (herritarrek lege-mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartzea) Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 4. eta 5. artikuluetan arautzen den hasiera-fasean sartuta dago, kontuan hartuta herritarrekiko interakzio-izapidea dela, eta testu juridiko jakin bat onartu aurretik egin behar dela.

Izapidea Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2020ko azaroaren 11ko Aginduaren bidez bete da eta ekarpenak jaso dira, lege-aurreproiektua egiteko espedientean txertatuta geratu direnak, eta baloratu egingo dira.

Lege-aurreproiektua aurretiaz onartu ondoren, testua Eusko Legebiltzarrera bidali beharko da, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56.1 artikulua aplikatuz, 7/1981 Legea aldatzen duen ekainaren 2ko 8/2016 Legeak emandako idazketan.

Aldez aurreko onarpenaren agindua, arau-proiektuarekin batera, Legesarea lankidetza-gunean argitaratuko da (2010eko abenduaren 28ko Akordioaren 1.2. atala). Era berean, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean aurreikusitakoa betez, xedapena Legegunea atarian argitaratuko da.

Aurreproiektua entzunaldi-izapidearen mende jarriko da, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Era berean, testua beste administrazio batzuek parte hartzeko eta haiei kontsultatzeko izapidearen mende jarriko da, abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 9. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Txosten hauek eskatuko dira:

- Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Zerbitzu Zuzendaritzaren txosten juridikoa, abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 7.3 artikuluan eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoari buruzko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 42.1.a) artikuluan ezarritakoaren arabera.

-..Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren abuztuaren 21eko 40/2012 Ebazpenaren 2.1) lehenengo jarraibidean

ezarritakoaren arabera (40/2012 Ebazpena, Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutako erabakia argitara dadila xedatzen duena; horren bidez, generoaren araberako eraginaren aurretiazko ebaluazioa gauzatzeari buruzko jarraibideak onartu eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeari buruzko neurriak hartzen dira.

- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen txostena, arauak generoaren arabera duen eraginaren ebaluazioari buruzkoa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren arabera.

- Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, Xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuaren 3. artikuluan ezarritakoaren arabera.

- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen txostena, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzko maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1.a) artikuluan ezarritakoaren arabera.

- Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordearen txostena, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 91.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

- Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren nahitaezko txostena, ekonomiaren eta arauen kontrolari buruzkoa, urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bateginaren III. tituluko IV. kapituluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

- Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1.a) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Esparru horretan, eta Jaurlaritzari buruzko Legearen 56.2 artikuluan xedatutakoa betez – Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legea aldatzen duen ekainaren 2ko 8/2016 Legeak emandako idazkeran –, "Aholku Batzorde Juridikora igortzen den dokumentazio bera, aldi berean, Eusko Legebiltzarrera bidaliko da, legebiltzar-taldeek horren berri izan dezaten".

**Europar Batasunaren aurreko izapideak.**

Ez da ikusten Europar Batasunaren aurrean inolako izapiderik egin behar denik.

**Idazteko sistema.**

Aurreproiektua Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 14ko Erabakian aurreikusitakoaren arabera idatzi beharko da. Erabaki horren bidez, Lege, Legegintzako Dekretu, Dekretu edo Aginduaren forma hartzen duten xedapen orokorrak bi hizkuntzatan idazteko neurriak onartzen dira.

Aurreko hori eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 8.1 artikuluan xedatutakoa betetzeko erabiliko den sistema Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren (IZO) itzulpena izango da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen zeharkako itzulpen-zerbitzuak zentralizatzea xedatzen duen apirilaren 3ko 48/2012 Dekretuarekin bat etorriz.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburua

IGNACIO MARIA ARRIOLA LOPEZ
Sinadura elektronikoa

**ORDEN DEL CONSEJERO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTE, POR LA QUE SE INICIA EL PROCEDIMIENTO DE ELABORACIÓN DEL ANTEPROYECTO DE LEY DE MOVILIDAD SOSTENIBLE DE EUSKADI.**

El Estatuto de Autonomía del País Vasco reconoce en el artículo 10.32 la competencia exclusiva de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de ferrocarriles, transportes terrestres, marítimos, fluviales y por cable, puertos, helipuertos, aeropuertos y servicio meteorológico del País Vasco, sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo 149.1.20 de la Constitución.

Asimismo el artículo 10.25 de dicho texto legal le reconoce la competencia exclusiva en materia de promoción, desarrollo económico y planificación de la actividad económica del País Vasco, de acuerdo con la ordenación general de la economía, el artículo 10.31 de dicho texto legal le reconoce competencia exclusiva en materia de urbanismo y ordenación del territorio y el artículo 11.1.a) la competencia de desarrollo y ejecución de la legislación del Estado en materia de medio ambiente y ecología.

El Decreto 18/2020, de 6 de septiembre, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, atribuye en su artículo 11.1.i) al Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes las funciones y áreas de actuación en materia de transportes terrestres, marítimos, fluviales y por cable.

En el ejercicio de dicha competencia desde este Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes se ha considerado la oportunidad y procedencia de elaborar un Proyecto de Ley de Movilidad Sostenible de Euskadi.

La elaboración del proyecto y su tramitación ha de formularse conforme al cauce dispuesto en la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

El apartado primero del artículo 4 de la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, dispone que "el procedimiento de elaboración de las disposiciones de carácter general se iniciará por Orden del Consejero o Consejera titular del Departamento competente por razón de la materia sobre la que versen".

En atención a lo expuesto, y de conformidad con lo establecido en el artículo 5.1 de la citada Ley 8/2003, de 22 de diciembre, en el que se señala el contenido necesario de la Orden de iniciación,

**RESUELVO:**

**Primero. - Objeto.**

El objeto de la presente Orden es iniciar el procedimiento para la elaboración del Anteproyecto de Ley de Movilidad Sostenible.

**Segundo. - Objeto y finalidad de la norma. Contenido de la regulación propuesta.**

El objeto y finalidad del Anteproyecto de Ley de Movilidad Sostenible es establecer los principios y objetivos a los que debe responder el transporte de personas y mercancías para lograr el desarrollo integral de una movilidad sostenible y segura desde las perspectivas social, económica y ambiental.

Asimismo, se pretende ordenar los instrumentos y procedimientos necesarios para lograr una movilidad sostenible en Euskadi, coordinada entre las administraciones con competencia en las materias relacionadas con la movilidad.

Por último, se pretende crear la agencia de seguridad ferroviaria de Euskadi, con naturaleza jurídica de ente público de derecho privado y como autoridad responsable de la seguridad del sistema ferroviario.

**Segundo. - Viabilidad jurídica y material.**

Competencia de la Comunidad Autónoma del País Vasco

El anteproyecto de ley que se pretende elaborar, inicialmente es viable jurídica y materialmente, toda vez que en virtud del artículo 10.32 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, la Comunidad Autónoma del País Vasco tiene la competencia exclusiva, entre otras, en materia de transportes terrestres, ferrocarriles y de transporte por este medio y asimismo de transporte por cable, materializándose dichas transferencias por Decreto 2488/1978, de 25 de agosto y Decreto 1446/1981, de 19 de junio.

Asimismo el artículo 10.25 de dicho texto legal le reconoce la competencia exclusiva en materia de promoción, desarrollo económico y planificación de la actividad económica del País Vasco, de acuerdo con la ordenación general de la economía, el artículo 10.31 de dicho texto legal le reconoce competencia exclusiva en materia de urbanismo y ordenación del territorio y el artículo 11.1.a) la competencia de desarrollo y ejecución de la legislación del Estado en materia de medio ambiente y ecología.

Competencia orgánica:

El Decreto 18/2020, de 6 de septiembre, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, atribuye en su artículo 11.1.i) al Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes las funciones y áreas de actuación actuaciones en materia de transportes terrestres, marítimos, fluviales y por cable de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Dentro del Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes, y de conformidad con lo dispuesto en el Decreto 11/2021, de 19 de enero, por el que se establece su estructura orgánica y funcional, la Viceconsejeria de Infraestructuras y Transportes tiene atribuidas la dirección y coordinación del área de actuación referida a los transportes terrestres, marítimos, fluviales y por cable [art.14.1.c.], pudiendo para ello promover proyectos de disposiciones de carácter general [art.7.d.], estando entre las atribuciones de la Dirección de Planificación del Transporte la de elaborar y tramitar proyectos de disposiciones de carácter general en las materias de su competencia [art.8.b.].

Competencia funcional.

De otro lado, de conformidad con lo establecido en el artículo 4.1 del arriba citado Decreto 11/2021, de 19 de enero, corresponde al Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes el ejercicio de las competencias establecidas en los artículos 26 y 28 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, y cuantas le atribuya la legislación vigente en el ámbito de las funciones y áreas de actuación asignadas al Departamento. En concreto el artículo antes citado [art.26.8] le faculta para proponer para su aprobación por el Gobierno, proyectos de ley en materias propias de su competencia.

Tal y como se ha manifestado anteriormente, y dentro del Departamento, la iniciativa ha de ser atribuida al titular de la Viceconsejeria de Infraestructuras y Transportes de la cual dependen la Dirección de Planificación del Transporte [art.14.4], siendo por ello competencia de dicha Dirección la elaboración del proyecto de texto normativo.

**Repercusiones en el ordenamiento jurídico.**

Este anteproyecto de ley se tramita en ejercicio de la competencia exclusiva de la Comunidad Autónoma del País Vasco en materia de transportes terrestres, ferrocarriles y de transporte por este medio y asimismo de transporte por cable, recogida en el art.10.32 del EA y pretende establecer los principios y objetivos para lograr el desarrollo integral de una movilidad sostenible y segura, así como ordenar los instrumentos y procedimientos necesarios para lograr dicha movilidad sostenible, con respeto a las distintas normas de carácter sectorial con implicaciones en materia de movilidad sostenible.

Respecto a las repercusiones en el ordenamiento jurídico existente, y en materia de movilidad, destacamos en el ámbito estatal la Ley 2/2011, de 4 de marzo, de Economía Sostenible, y en el ámbito autonómico la Ley 4/2019, de 21 de febrero, de Sostenibilidad Energetica de la CAPV y el Decreto 254/2020, de 10 de noviembre, sobre Sostenibilidad Energética de la CAPV.

En materia de seguridad ferroviaria, en el ámbito europeo destacamos la Directiva (UE) 2016/798, de 11 de mayo, sobre Seguridad ferroviaria. En el ámbito estatal la Ley 38/2015, de 29 de septiembre, del Sector Ferroviario, y el Real Decreto 1072/2014, de 19 de diciembre, por el que se crea la Agencia Estatal de Seguridad Ferroviaria y se aprueba su estatuto. En el ámbito autonómico destacamos la Ley 6/2004, de 21 de mayo, de Red Ferroviaria Vasca-Euskal Trenbide Sarea y el Decreto 29/2016, de 23 de febrero, por el que se aprueba el Reglamento de circulación y señales para las infraestructuras ferroviarias de competencia de la CAPV.

**Incidencia económica y presupuestaria.**

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 10.3 de la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, se elaborará la correspondiente memoria económica, que analizará el coste derivado de la aplicación de la futura norma y la incidencia que tendrá su aplicación en los Presupuestos Generales de la CAPV.

Asimismo, en dicha memoria se contemplará un análisis del impacto de la norma en otras Administraciones y en los particulares, así como en la economía en general.

**Trámites e informes que se estiman procedentes.**

De acuerdo con la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, la Orden de inicio señalará los trámites e informes que se estimen procedentes en razón de la materia.

En el expediente deberá constar, además de la ya mencionada memoria económica, una memoria justificativa sobre la necesidad, oportunidad y objetivos de la norma.

En la memoria deberá asimismo constar la evaluación de impacto en la empresa, a efectos de cumplimentar lo establecido en el artículo 6 de la Ley 16/2012, de 28 de junio, de Apoyo a las Personas Emprendedoras y a la Pequeña Empresa del País Vasco.

De conformidad con el Acuerdo de Consejo de Gobierno de 12 de diciembre de 2017, por el que se aprueban Instrucciones sobre la aplicación del Procedimiento de Elaboración de Disposiciones de Carácter General, la cobertura de lo dispuesto en el artículo 133 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas (Participación de los ciudadanos en el procedimiento de elaboración de normas con rango de ley y reglamentos), se entenderá que se encuentra integrada en la fase de iniciación que se regula en los artículos 4 y 5 de la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General, teniendo en cuenta que se trata de un trámite de interacción con la ciudadanía que se debe realizar con un carácter previo a la aprobación de un determinado texto jurídico normativo.

La cumplimentación del trámite se ha realizado mediante Orden del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes de 11 de noviembre de 2020, y se han recibido aportaciones que quedan incorporadas al expediente de elaboración del anteproyecto de ley y serán valoradas.

Tras la aprobación previa del anteproyecto de ley, el texto deberá ser remitido al Parlamento Vasco, en aplicación del artículo 56.1 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, en la redacción dada por la Ley 8/2016, de 2 de junio, de modificación de la Ley 7/1981.

La Orden de aprobación previa, junto con el proyecto normativo, se hará pública en el espacio colaborativo Legesarea (apartado primero.2 del Acuerdo de 28 de diciembre de 2010). Asimismo, en cumplimiento de lo previsto en la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno, la disposición se publicitará en el portal Legegunea.

El Anteproyecto será sometido al trámite de audiencia, de acuerdo con lo establecido en el artículo 8 de la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

Asimismo, el texto será sometido al trámite de participación y consulta a otras Administraciones, según lo previsto en el artículo 9 de la Ley 8/2003, de 22 de diciembre.

Se recabarán los siguientes informes:

- Informe jurídico de la Dirección de Servicios del Departamento de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes, conforme a lo establecido en el artículo 7.3 de la Ley 8/2003, de 22 de diciembre y el artículo 42.1.a) del Decreto 144/2017, de 25 de abril, del Servicio Jurídico del Gobierno Vasco.

- Informe de Impacto en Función de Género, de acuerdo con lo establecido en la Directriz Primera 2.1) de la Resolución 40/2012, de 21 de agosto, de la Directora de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, por la que se dispone la publicación del Acuerdo adoptado por el Consejo de Gobierno "*por el que se aprueban las Directrices sobre la realización de la evaluación previa del impacto en función del género y la incorporación de medidas para eliminar desigualdades y promover la igualdad de mujeres y hombres*".

- Informe de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, sobre la evaluación del impacto de la norma en función del género, de acuerdo con lo establecido en el artículo 21 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

- Informe de la Dirección de Normalización Lingüística de las Administraciones Públicas del Departamento de Cultura y Política Lingüística, en virtud de lo determinado en el artículo 3 del Decreto 233/2012, de 6 de noviembre, por el que se establece el régimen de inclusión de la perspectiva de normalización del uso del euskera en el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general.

- Informe del Consejo Económico y Social Vasco, en virtud de lo previsto en el artículo 3.1.a) de la Ley 8/2012, de 17 de mayo, del Consejo Económico y Social Vasco.

- Informe de la Comisión de Gobiernos Locales de Euskadi, en base a lo dispuesto en el artículo 91.1 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi.

- Informe preceptivo de control económico-normativo de la Oficina de Control Económico, según lo establecido en el Capítulo IV del Título III del texto refundido de la Ley de Control Económico y Contabilidad de la Comunidad Autónoma de Euskadi, aprobado por Decreto Legislativo 2/2017, de 19 de octubre, y en el Decreto 464/1995, de 31 de octubre, por el que se desarrolla el ejercicio del control económico interno y la contabilidad en el ámbito de la CAE.

- Dictamen de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, en virtud de lo dispuesto en el artículo 3.1.a) de la Ley 9/2004, de 24 de noviembre, de la Comisión Jurídica Asesora de Euskadi.

En ese marco, y en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 56.2 de la Ley de Gobierno -en la redacción dada por la Ley 8/2016, de 2 de junio, de modificación de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno-, "la misma documentación que se envíe a la Comisión Jurídica Asesora se remitirá, al mismo tiempo, al Parlamento Vasco, a efectos de su conocimiento por parte de los grupos parlamentarios".

**Trámites ante la Unión Europea.**

No se aprecia la necesidad de realizar ningún trámite ante la Unión Europea.

**Sistema de redacción.**

La redacción del Anteproyecto deberá efectuarse conforme a lo previsto en el Acuerdo del Consejo de Gobierno de 14 de mayo de 2013, por el que se aprueban las medidas para la elaboración bilingüe de las disposiciones de carácter general que adopten la forma de Ley, Decreto Legislativo, Decreto u Orden.

El sistema que se utilizará para el cumplimiento de lo anterior, así como de lo dispuesto en el artículo 8.1 de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del euskera, será el de traducción por el Servicio Oficial de Traductores (IZO), de conformidad con el Decreto 48/2012, de 3 de abril, por el que se determina la centralización de los servicios transversales de traducción de la Administración General de la Comunidad Autónoma y sus Organismos Autónomos.

El Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes

IGNACIO MARIA ARRIOLA LOPEZ
Firmado electrónicamente